



1

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

392/2022 Foru Agindua, abuztuaren 2koa, uztailaren 20ko 420/2021 Foru Agindua aldatzen duena, zeinaren bidez onesten baita 369 eredia, «Balio erantsiaren gaineko zerga. Subjektu pasibo ez diren pertsoneri zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboek aplikagarri dituzten araubide berezien autolikidazioa» izenekoa, eta haren aurkezpen modua eta prozedura zehazten baitira.

Uztailaren 20ko 420/2021 Foru Aginduaren bitartez, 369 eredia onartu zen, hain zuzen ere «Balio erantsiaren gaineko zerga. Subjektu pasibo ez diren pertsoneri zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboek aplikagarri dituzten araubide berezien autolikidazioa» izenekoa.

Eredu horren bidez, autolikidazioa egin daiteke Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legean jasotako urrutiko salmentei eta ondasunen barne entrega eta zerbitzu prestazio jakin batzuei aplikatu beharreko araubide berezi berrietan jasotako eragiketei dagokienez.

Aurkezteko epeari dagokionez, haren 3. artikuluan ezartzen da eredia autolikidazioari dagokion aldia amaitu ondorengo hilabete naturalean aurkeztuko dela.

Arrazoi teknikoak direla-eta, eta zerga ereduak aurkezteko epeak harmonizatu behar direnez, komeni da 369 eredia aurkezteko data ezartzea, autolikidazioari dagokion aldia amaitu eta ondorengo hilabete naturalaren 25 egunetan.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Uztailaren 20ko 420/2021 Foru Agindua aldatzea, zeinaren bidez onesten baita 369 eredia, «Balio erantsiaren gaineko zerga. Subjektu pasibo ez diren pertsoneri zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboek aplikagarri dituzten araubide berezien autolikidazioa» izenekoa, eta haren aurkezpen modua eta prozedura zehazten baitira.

Aldatu egiten zaio 3. artikulua uztailaren 20ko 420/2021 Foru Aginduari, zeinaren bidez onesten baita 369 eredua, «Balio erantsiaren gaineko zerga. Subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboek aplikagarri dituzten araubide berezien autolikidazioa» izeneko, eta haren aurkezpen modua eta prozedura zehazten baitira. Honela idatzita gelditzen da artikulua hori:

«3. artikulua. 369 eredua aurkezteko epea.

Autolikidazioan aitortzen den zergaldia amaitu ondorengo hilabete naturalaren 1etik 25era bitartean aurkeztuko da 369 eredua.»

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2022ko abuztuaren 2a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasuneko foru diputatua. (5254)